

## **UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA** **EZINBESTEKO ZERBITZUA OIARTZUNGO HERRIAN**

Hamaika izerdi eta buruhauste izan genuen Partzuergoaren bidea taxutu genuen arte. Atzera begiratu behar horretarako, izan ere gauzak bere bidetik doazenean errez ahazten baitira nolatan eta nola iritsi garen egungo egoerara.

Oiartzunen bazegoen txikien (0-3 urte) hezkuntza publikoan defizita. Iturburu udal haur-eskola hor zegoen herriko 32 haurrei soilik erantzuten. Bakarrik eta bakartua. Sobera eskas hainbeste hedatzen ari zen herriko beharrei aurre egin ahal izateko. Sobera eskas, aurrekaldean genuen hezkuntza erreformako gurpilean proiektatzeko. Laguntza beharrean bai eta lagunen beharrean zer esanik ez.

Baina kezka hau ez zen Iturburukoa bakarrik. Herriko ikastetxe guztien hezkuntza etorkizuna zen errotik astindu zuena Erreformatik eta holako egoeretan gertatzen den moduan, aukera paregabea ikusi genuen eskola-ikastola-haur-eskola munduko guztiok Oiartzungo herriari eskola berri baten eskaintza egiteko. Eskola bakarra izango zena eta hobeagoa; udal eskola izango zena eta jaiotzetik 18 urte bitarteko herri eskaintza egiteko gai izango zena.

Asmoak, ordea, erdibidean geratu ziren Elizalde ikastetxeko gurasoek atzera egin zutenean proiektuarekin. Bat-batean gure asmoa pikutara zihoala ikusi genuen eta amestutako guztia gainbera zetorkigun ustekabeen. Berrikotik hastea beste biderik ez genuen eta oraingo honetan Haurtzaro ikastola, Iturburu, Ttipi Ttapa eta Koikile Arruabarrena haur-eskolakoak ginen elkartu nahi genuenak udal proiektuan. Hortik sortu zen buruhauste galanki ondoren, gaur egungo UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA.

*Udal Ikastola Partzuergoa* Haurtzaro ikastola eta udalak sortutako erakundea da 0-3 urte bitarteko haur-eskola kudeatzeko helburuarekin. Partzuergoak berez, bere baitan hartu zituen herriko hiru haur-eskolak, bertako langileak eta lan esperientziak aprobetxatuz. Partzuergoak bere ibilbidea egin du eta emaitzak hor daude herritarren eskura. Ikusi besterik ez dugu nola doan handitzen urtetik urtera, gero eta guraso gehiagoen eskaera jasotzen dugun heinean. Jada, ehunetik gora haur ditugu, 14 talde eta erditan banaturik.

Partzuergoko kalitatearen neurria ematen digute herritarrek, baina ez eurak bakarrik. Gaur egun haur-eskola askoren erreferente bihurtu da gurea. Hor ditugu adibiderako jasotzen ditugun bisitak edo antzeko proiektuak egin ahal izateko kolaborazio eskaerak edo eta aholkularitza eskaerak, gero eta maizago ematen direnak. Eusko Jaurlaritzak berak gure Proiektu Curricularra publikatu du, kalitatearen eredu modura. Guzti honengatik esan nahi da Partzuergoan egiten dugun lana serioa dela, mailakoa. Haur txikien heziketan *maisú* ezin esan, denak maistrak baikara. Haur txikien heziketan espezializatuak eta espezializatzen jarraitzen dugunak etengabe.

Baina Partzuergoa ez dugu irakasleok bakarrik egiten. Gurasoak hor ditugu, Haurtzaro Ikastola hor dugu eta batez ere hor dugu Oiartzungo udala Partzuergoari egonkortasuna emateko. Partzuergoaren funtzionamenduak egitura irekia du, partehartzailea. Guraso-

hezitzaile batzordeek sustraitzen dute proiektua gero zuzendaritza batzordeak bideratzen duena, edo alderantziz, zuzendaritza batzordeak mamitzen duena guraso-hezitzaile batzordeek taxutzen dute. Gauza da guztion artean ari garela haur-eskola eraikitzen, batzuk dirua jarritz eta dagokion kontrola eramanez, besteek baliabideak eskuratuz eta beste batzuek lana eginez edota burua hautsiz gauzak gero eta hobeto egiteko. Herriko proiektua den heinean, guztion proiektua da. Edonork du sarrera bertan parte hartzeko.

2004ko Xanistebanetan gaude eta harro esan behar dugu Oiartzungo herriak gaur egun duen zerbitzurik ez zuela izango 1997. urtean aurrera begira jarri ez bagina Partzuergoa osatzen dugunok. Horretan zalantzarik ez. Borondatea egon da tartean, etengabeko lana ere bai, partaide guztien ahalegina nabarmena eta Haurtzaro ikastolako ez da ttikiena izan, beretik asko eta asko jarri bai du haur-eskola behar bezalako baldintzetan gauza zedin.

Gaur egoera hobegoan gaude. Gurasoek kuotak ordaintzeko bekak badituzte. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako finantziarioa ia sei aldiz handiagoa da, udalaren zama ekonomikoa biziki arinduz. Eta egoera hobegoan gauden honetan beste aurrerapausoa emateko garaia iritsi zaigu: **Herriko 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat egoitza bakar eta berria eraikitzea lehenbailehen**. Premia badago eta orain arte erakutsi dugun konpromiso eta ardura maila erakusten jarraitzeko prest gaude, horrek ekarriko duen lan kopuru gehigarriari beldurrik azaldu gabe.

Lehen pausoak ematen hasiak gara. Udalarekin hitzartu genuen arduren artean, finantziario iturriak bilatzekoa izan zen bat. Horregatik Haurtzaro ikastolak mugitu zituen bere baliabideak 2006rako *Kilometroak* egiteko eskaera eginez. Dagoeneko behin behineko baimena jaso du. *Kilometroaken* eskaera egiteko beharra besteak beste 0-3ko egoitza berriaren premian oinarritu zen, modu honetan Oiartzungo herriarentzat utziz bertatik lortuko diren etekinak. Aho batez, beraz,

OIARTZUNEK BEHAR DUEN 0-3KO UDAL EGOITZA BERRIARI ONGI ETORRIA  
***KILOMETROAK 2006 OIARTZUN*** LAGUNGARRI DUGULARIK

Izaskun Madariaga Irigorri